

EUSKAL ZINEMA GALA HONDALEA: ABISMO MARINO

# Altuna: "Film baten aurrean, ez dakizu zein puntutan gozatuko duzun gehiago"

IRENE ELORZA

Donostiako Santa Klara uharteko itsasargian Cristina Iglesias artistak sortu duen 'Hondalea' eskultura eraikitze prozesua grabatzeko enkargua jaso zuen Asier Altuna Iza (Bergara, 1969) zinemagileak, eta dokumentala osatu du material horrekin guztiarekin. Ehzitariaren jarra bereganatu eta harrapakinarekin atzetik ibili da urte eta erdiz, artearen eta naturaren arteko mugan ibiliz. *Bertsolari eta Arzak since 1897* dokumentalen ondoren egin duen hirugarren ez-fikziozko lan honen esperientziak asebeteta eta bizirik sentiarazi diola aitortu du.

**Fikzio baten sorkuntza prozesua jaso duzu dokumentalean. Making-of bat egitea bezalakoa izan al da?**

Santa Klara irlan, bertako itsasargian eta Cristina Iglesiasek Madrilan duen estudioan gertatzen ari zena jarraitzea eta horrekin dokumental bat atontzea izan zen gure lana. Horiek ziren gure mugak. Erakundeetatik enkargua jaso genuen Txintxua Filmsen, konturatu zirelako interesgarria zela proiektuaren atzean zegoena grabatzea. Ez genekien oso ondo zer egingo genuen. Intentzio askorik gabe prozesua grabatzea zen helburua. Errespetu guztiarekin aritu gara urrunetik, traba egin gabe, zeren Iglesias zuhur jokatzekoa da. Hori izan da gure lana 20 hilabetetan. Proiektuaren dimentsioa handia zen eta interesatzen zitzaizkidan elementu batzuk zituen: itsasoa, natura, urtarokak... Cristina Iglesiasek berak esaten du bere lanak fikziotik edo zinetik gehiago duela eskulturatik baino, askotan. Misterio edo ilusionismo hori, erakutsi ez-nahi hori



JORGE FUENBUENA

oso zinematografikoa da. Gauza horiekin guztiekin hasi ginen jolasean eta dokumentala osatu dugu. Horretara mugatu gara, eta mugak politikak dira sarritan.

**Ilusio baten eraikuntza prozesua erakustean, horri magia kentzeko arriskua dago aldi berean. Nola aurkitu oreka?**

Ez da oso film didaktikoa, zeren erakus-

ten baita zertan ari diren, baina ez genuen sakondu nahi teknikan edo prozesu horren zailtasunean. Modu natural batean ikusten da prozesua. Gu lekuko bezala egon gara bide horretan.

## Zinemira Saria Kimuakentzat

Euskal Zinema Galan ikusi ahal izango da Asier Altunaren *Hondalea: abismo marino*, gaur. Urtero bezala, Victoria Eugenia antzokia ospatuko da euskal zinemaren jaia. Proiektzioaren aurretik, Zinemira Saria jasoko dute Kimuak programako egungo ordezkariak, Txema Muñozek eta Esther Caberok. Zinemaldiak eta EPE/APV eta IBAIA ekoizleen elkarteek euskal zinemaren nortasun, programa edo erakunde nabarmen baten ibilbideari egiten dioten aitortza da Zinemira Saria. Aurten, Zinemaldiak eta ekoizleen elkarteek Kimuak euskal film laburrak babes-teko programari omenaldia egitea erabaki dute, Jaurralitzak, Euskadiko Filmetegiak eta Etxepare Institutuak bultzatutako programari, hain zuzen. Ekimena 1998an hasi zen, film laburrak banatzeko orduan zegoen gabeziari erantzuteko asmoz. Orduz geroztik, euskal film laburrak Espainiako estatuan eta nazioartean sustatu eta zabaldu dituzte, eta 23 urte geroago helburu horiek izaten jarraitzen du.

Gehien harritu nauen kontuetako bat Alfarte enpresakoen lana izan da. Ez nuen ezagutzen eta, bat batean, laneko filosofia oso berezia duen Eibarko kooperatiba hau ezagutzea sekulakoa izan da. Gero, Cristina ezagutzea, bere nortasuna, bere estudioa, eta proiektuak nola eramaten dituen aurrera ikustea, zein langile eta zehatza den... hori guztia bitiztea oso esperientzia polita izan da.

**Zuretzat zein izan da erronkarik handiena?**

Nik fikzionatzeko eta urrutirago joateko tendentzia daukat, eta filmeko erronkarik handiena kontakizunera mugatzea izan da. Horretan, Cristinak ere markatu du bidea pixka bat. Benetan, 'Hondalea'-rekin eta bere obra guztiekin oso urrutira joan zaitezke. Gehien harritu nauena da ikustea zein koherentea den bere espirituarekin eta berau nola mantentzen duen bere obra guztietan.

**Soinuek eta musikak ezinbesteko ekarpena egin diote dokumentalari. Aitor Etxebarriaren (musika) eta Alazne Ameztroy eta Xanti Salvadorrekin (soinua) elkarlanean aritu zara. Nola planteatu zenuten soinu-bandaren diseinua?**

Prozesu naturala izan da guztia. Ekainean bukatu zen eskulturaren obra eta guk apur bat lehenago bukatu genuen grabazioa. Aurremuntaketak egiten hasiak ginen, lanak aurreratze aldera, baina benetan gozamina izan da irudiekin bukatu dugunean musika eta soinuarekin hastea. Film baten aurrean zaudenean ez dakizu zein puntutan gozatuko duzun gehiago, eta, kasu honetan, dena elkartu da puntu honetan: naturako irudiak musikarekin eta soinuarekin nahastea eta horiekin jolastea oso pozgarria izan da. Bukatu dut filma goian, a ze gozatua!

## ZINEMAREN HIRU ALDIEN ESKOLA

lkerkuntza, gogoeta eta esperimentazio zinematografikorako nazioarteko zentroa. Hiru graduondoko ikasketak:

- 01 Artxiboa
- 02 Komisariotza
- 03 Sorkuntza

## LA ESCUELA DE LOS TRES TIEMPOS DEL CINE

Centro internacional para la investigación, el pensamiento y la experimentación cinematográfica. Tres estudios de postgrado:

- 01 Archivo
- 02 Comisariado
- 03 Creación

## THE SCHOOL OF THE THREE TENSES OF CINEMA

International centre for research, thought, and film experimentation. Three postgraduate studies:

- 01 Film preservation
- 02 Film curating
- 03 Filmmaking